

**EUROPAKO KONBERGENTZIA  
UNIBERTSITATE-HEZKUNTZAN:  
1998-2003 DENBORALDIA**

-----  
**CONVERGENCIA EUROPEA EN  
MATERIA DE EDUCACIÓN  
SUPERIOR:  
PERIODO 1998-2003**

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

*Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetarako Errektoreordetza  
Vicerrectorado de Investigación y Relaciones Internacionales*



# Aurkibidea

<b><i>Sarrera</i></b> _____	<b>3</b>
<b><i>Une gogoangarrien egutegia</i></b> _____	<b>5</b>
<b><i>Prozesuaren hasiera</i></b> _____	<b>7</b>
<b><i>Une gogoangarri aipagarrienak</i></b> _____	<b>11</b>
<b>Sorbonako deklarazioa (1998)</b>	
<b>Sorbonako deklarazioa (1999)</b>	
<b>Europako unibertsitateen lehenengo bilera: Salamancako gailurra (2001)</b>	
<b>Pragako gailurra (2001)</b>	
<b>Europako unibertsitateen bigarren bilera: Graz-eko gailurra (2003)</b>	
<b>Berlingo gailurra (2003)</b>	
<b><i>Aipatzen diren dokumentuak eta proiektuak</i></b> _____	<b>19</b>
<b>Trends I, II eta II txostenak</b>	
<b>Tuning proiektua</b>	
<b>Beste proiektu batzuk</b>	
<b><i>Espainiako unibertsitate-sistemaren aurrerapenak</i></b> _____	<b>22</b>
<b>Unibertsitate-ikasketen egitura</b>	
<b>Kreditu europarren sistema</b>	
<b>Tituluarentzako gehigarri europarra</b>	
<b>Beste dekretu batzuk</b>	
<b>ANECaren jarduera aitzindariak</b>	
<b><i>Bibliografia</i></b> _____	<b>27</b>
<b><i>Laburdurak eta web helbide interesgarriak</i></b> _____	<b>28</b>

## Sarrera

Azken sei urte hauetan aurrerapen nabarmenak egin dira etorkizuneko Europako goimailako hezkuntzaren ikuskeran. Aurrerapen horiek gertatu dira hainbat programa, gailur eta bilera egin ondoren beste hainbat dokumentu eta deklarazio eratu direlako; horien artean, *Boloniako deklarazioa* gailentzen da. Prozesu honek guztioi eragingo digu: irakasleei, administrazio eta zerbitzuetako pertsonalari eta baita gainerako gizarteragileei ere. Horregatik, ezinbestekoa da prozesuaren berri izatea eta prozesua gertutik jarraitzea. Begi-bistakoa denez, prozesuak berebiziko garrantzia du, baita ere, munduko gainerako unibertsitate-sistementzat. Prozesua behin amaituta, emaitzak planteatutako helburuekin bat badatoz, gure unibertsitateek, ikerketaren aldetik, arlo akademikotik eta kudeaketaren aldetik begiratuta ez ezik pertsonalari eta ikasleei dagokienez ere egoera berri bat izango dute. Hori horrela, panorama berri horri erantzuteko moduko politikak diseinatu beharko dituzte gure unibertsitateek.

Hitz bitan esanda, Europako unibertsitate-sistemek inoiz ezagutu ez duten erronka bati egin beharko diote aurre: Europako Unibertsitate Eremuaren (EUEren) eraikuntza. Argi dago prozesu ireki batean gaudela eta hor unibertsitateek zeregin garrantzitsua dutela burutzeko. Unibertsitateentzat eta, oro har, Europako unibertsitate-sistementzat erronka datza berrikuntzan eta sareko lanean, eta baita ere, gaur egungo aukerak aprobetxatzean. Ikasleak erakartzeko gaitasun gehiago, unibertsitate-tituluen gorakada, irakasleei izendatutako kredituetako jarduera ez-presentzialen neurketa, titulazioen egituraren inguruko ikuskera berria edo kalitatearen ziurtatzea. Horiek dira, besteak beste, unibertsitate-eremuarentzat planteatzen diren nobedade handienak.

Nolanahi ere, argi geratu behar du ez gaudela harmonizazio- edo homogeneizazio-prozesu batean; aitzitik, eraikuntza-prozesu batean gaude eta, hortaz, itxuraz desberdinak diren egoerak elkarrekin bizi daitezke. Baina egoera horiek, edozein modutan, printzipio berberak izango dituzte; Boloniako, Pragako, Berlingo eta ondorengo beste deklarazio batzuetan jasotzen diren printzipioak, hain zuzen ere. Ez dirudi kasualitatea denik “eremu” hitza aukeratu izana, eta ez beste hitz arruntago

batzuk (“sistema”, esaterako); izen arruntago horiek kohesio, harmonia eta finkatutako multzo-nortasun handiagoa dute. Dударik ez dago hori ondoren eman beharreko urrats bat dela.

EUEren oinarri izango diren printzipio eta ardatz nagusienak honako faktore hauei buruzkoak dira: unibertsitateko antolakuntza eta irakaskuntza (kreditu europar homogeneo bat, titulazioak bi ziklotan edo mailatan antolatzea...); kalitatearen ziurtatzea; bizitza guztiko ikaskuntza eta ikerkuntza; eta horien sustapena, nazioarteko sareen bidez.

EUEren eraikuntza-fasearen amaiera 2010. urterako aurreikusia dago, Boloniako gailurrean erabaki zen legez. Bestalde, lehenengo fase hau ez ezik, ondoren EUE mundu-mailan inplementatzeko eta sendotzeko fasea eta prozesuaren analisiaren fasea ere garrantzitsuak izango dira. Dena den, eta horrelako kasurik orain arte ezagutu ez dugunez, zaila da emaitzak aurreikustea, baina ez dago dudarik oso interes handiko prozesua izango dela; prozesuak guztioi eragingo digu eta esan daiteke bateratzen zailak izango diren ikuspuntuak erakutsiko dituela. Interesgarria da ikustea nola azkeneko gailurretan gero eta epe laburragoak ezartzen diren, gero eta zehatzagoak eta mugatuagoak diren helburuak erdiesteko. Hala, Berlingo gailurrean 2005eko maiatza ezarri zen —urte horretan burutuko da hurrengo ministroen gailurra, Bergen—, prozesuko jarduera eta lehentasun askotarako.

Amaitzeko, dokumentu honen helburua unibertsitate-hezkuntzaren konbergentzia europarraren prozesuari buruzko oinarrizko alderdirik aipagarrienak azaltzea baino ez da, idatzia izan den arte. Helburu nagusienak dira UPV/EHUko komunitate unibertsitario guztian prozesu horren aurrerakinak hedatzea, sensibilizazio-lana sendotzea eta, azken baten, prozesuan parte-hartze handiagoa izaten laguntzea.

*Donostian, 2003ko urrian*  
*Adolfo Morais Ezkerro. Europako Konbergentziarako errektorearen ordezkaria*

## Une gogoangarrien egutegia

1998-2003 denboraldian, azken 30 urte hauetan Europako unibertsitate-ikasketen aurreratzea aztertu da batetik, eta, guztien helburua den EUEren eraikuntzarako, herrialde edo estatu elkartu bakoitzeko unibertsitate-sistemak bete beharko dituen helburu estrategikoen inguruan hausnartu da bestetik.

Hona hemen denboraldi horretan izandako gailur, bilera eta dokumentu edo deklarazio nagusienak:

- XXI. menderako unibertsitate-hezkuntzari buruzko UNESCOren mundu-deklarazioa: ikuspuntua eta jarduera (1998), non sakon lantzen den mundu-mailako unibertsitate-hezkuntzaren gaurkotasuna.
- Frantzia, Erresuma Batua, Italia eta Alemaniako hezkuntza-ministroek Pariseko Unibertsitatearen urteurrenean egin zuten bileran, Sorbonako Deklarazioa jaio zen; goi-mailako hezkuntza-sistema europarraren diseinuaren harmonizaziorako deklarazioa, hain zuzen ere.
- Bolonian egin zen ministroen gailurra. Gailur hartan, 29 ministro bildu ziren Europako Unibertsitate Eremuaren inguruko Boloniako Deklarazioa sortu zen (1999).
- Lisboan egin zen Kontseilu Europarra eta Europako Batasuneko oinarrizko eskubideen gutuna, non alde batetik azpimarratzen den Europako Ezagutzaren Gizartea sortu beharra eta, bestetik, aitortzen den unibertsitateen funtsezko zeregina (2000).
- Salamancan eta Goteborgen egindako Europako unibertsitateen gailurrak. Gailur haietatik Europako Unibertsitateen Elkarte (EUE) eratu zen eta Europako unibertsitateek beren lehenengo ekarpena egin zieten Boloniako prozesuaren jarraipena egiteko ministroen gailurrei.
- Pragan (Txekian) egin zen ministroen gailurra. Gailur hura izan zen Boloniako prozesuaren segimendua eta ebaluazioa egiteko lehenengo bilera (2001).

- Stockholm-eko eta Bartzelonako Kontseilu Europarrak (2001ean eta 2002an). Kontseilu haietan berriro adierazi zen Europako Ezagutzaren Gizartea sortu, garatu eta indartu beharra zegoela (2001-2002).
- Graz-eko (Austriako) Europako unibertsitateen Gailurra. Gailur hartatik unibertsitateen inguruan hausnarketa egiteko bigarren dokumentua sortu zen; Berlingo ministroen gailurrean (2003) aurkeztuko zen dokumentua, hain zuzen.
- Berlinen (Alemanian) egin zen Europako herrialde eta estatu elkartuetako ministroen gailurra (2003), non 2003-2005 denboraldirako lehentasunezko jardunbideak adostu ziren.

Europaren asmoa da EUEk horren lehiakide nagusienekin (Ameriketako Estatu Batzuekin, Australiarekin, Kanadarekin eta Japoniarekin) lehiatzeko moduko bikaintasun-maila erdiestea, horrela, eta unibertsitatearen esparruan, mundu-mailako erakarpen-gune bat bihurtzeko, XX. mendearen bigarren zatira arte, eta goi-mailako hezkuntzari dagokionez, Europak mundu-mailan izan zuen pisua berreskuratuz.

# Prozesuaren hasiera

Dudarik ez dago hausnarketa-prozesu hau beharrezkoa izan dela, arrazoi askorengatik: Horien artean, hauek aipatzen dira:

- (1) Goi-mailako hezkuntza herrialdeen garapen-mailaren adierazleetako bat da.
- (2) XX. mendearen bigarren erdialdean hezkuntzan izandako aurrerapena.
- (3) Unibertsitate-ikasketak egiteko aukera orokortu edo unibertsalizatu egin da.
- (4) Unibertsitate-ikasketek Europako herrialdeen ekonomientzat gastu-handitze bat ekarri dute.
- (5) Europako goi-mailako ikasketak erakartzeko gaitasuna beren atzekoekiko pixkanaka galtzen joan direla egiaztatua dago.
- (6) Aldi berean, lehiatzeko gaitasunaren pixkanakako galera hori beste sektoreetara ere heltzen dela egiaztatua dago (industriara eta sektore teknologikora, esaterako).
- (7) Europako mugikortasunaren eta kredituen transferentziaren inguruko programek duten arrakasta.

Esan daiteke unibertsitate-hezkuntzak iraganean bigarren mailako hezkuntzak zuen lekua hartu duela, herrialdeen garapen-mailaren adierazle moduan. Herrialdearen garapen-maila aintzat hartuz, ikusten da mundu-mailan populazioaren % 17 — unibertsitate-hezkuntzara ofizialki sartzeko adina dituztenak bakarrik kontuan hartu dira— unibertsitate-ikasketak burutzen ari dela. Herrialde garatuen batez besteko tasa % 52 den bitartean (Europar, % 43 eta Espainian % 51), garapen-bidean dauden herrialdeena % 10 baino ez da; garapen-maila oso baxua duten herrialdeetan, berriz, tasa hori % 3koa da. Horrenbestez, herrialde bateko unibertsitate-hezkuntzaren sistemaren eta garapen-mailaren arteko erlazioaz hitz egin daiteke.

Hezkuntza-aurrerapena nabarmena da, batez ere XX. mendeko bigarren erdialdean eta, bereziki, unibertsitate-hezkuntzari dagokionez. Zenbait herrialdetako unibertsitate-sistema nabarmen aurreratu da (Espainian, esaterako); arrakastatsuak izan dira, baita ere, Japonia, AEB, Kanada eta Europako erdialdeko herrialdeetan (Alemanian,

Frantzia eta Erresuma Batuan, esaterako). Gaur egun, Ameriketako Estatu Batuetako unibertsitate-sistema unibertsitate-ikasle gehien erakartzen duen gunea da; atzetik, Australia eta Kanada daude; eta hirugarren maila batean, Europako herrialdeak.

Espainiaren kasuan, unibertsitate-sistemaren eta unibertsitate-hezkuntzaren hedapena gizarte-egituraren ezaugarri nabarmenetako bat da. Hala, 1970ean % 9ko tasa zegoen; hamarkada bat beranduago, % 23koa; bi hamarkaden ondoren, % 37koa; eta hiru hamarkadaren buruan, % 51ra iritsi zen tasa. Hau da, hiru hamarkadetan, % 570 igo da. Aurreikusten da unibertsitate-ikasleen tasa % 75ekoa izango dela, hamarkada batean edo bitan; hala, lau pabost hamarkadetan, % 830ra iritsiko da.

Sinplifikatuz, oro har esan dezakegu azken hiru hamarkadetako aurrerapena arrazoi hauengatik izan dela (Espainiaren kasuan, trantsizio demokratikoa ere sar dezakegu):

- Modernizazioa.
- Ekonomi garapena.
- Hezkuntza-baliabide berriak.

Unibertsitate-ikasleen tasa gorantz doa herrialde garatuenetan (batez besteko tasa % 26koa zen 1970. hamarkadan eta % 52koa izan da mendearen amaieran; hau da, % 200eko gorakada 3 hamarkadetan. Europaren kasuan, % 14tik % 43ra pasa da, denboraldi berean, hau da, % 300ko gorakada izan da). Esan daiteke unibertsitate-tara ikasle gehiago joateagatik ez dela masifikazio-arriskurik sortzen: unibertsitate-hezkuntzaren beraren unibertsalizazioa lortzen da. Gainera, unibertsitatean hasi daitekeen populazioarekiko unibertsitate-ikasleen proportzioa igo bada ere, zenbaki absolutuetan ikasleen kopurua jaitsi egin da, aurreko urteekin alderatuz. Une hauetan unibertsitate-hezkuntzak duen erronka da irakaskuntzan eta ikerkuntzan duen maila altuari eustea, horri eusten badio unibertsitate-ikasketak egiteko adinean dagoen populazioari ikasketa horiek egitera bultzatuko duelako.

Herrialde aurreratuetan, hezkuntzako gastua gastu publikoa da gehienbat. ELGako herrialdeek, batez beste, % 85eko gastu publikoa egiten dute; unibertsitate-hezkuntzan, berriz, finantzaketa publikoaren % 77a da, batez beste. Europako herrialdeen gastua gailentzen da: Alemania (% 92), Portugal (% 92), Italia (% 85), Espainia (% 76), Frantzia (% 75), Erresuma Batua (% 73). Horiek guztien gastu publikoa unibertsitate-

ikasketetan pertsona gehien dituzten herrialdeena baino askoz handiagoa da: Australia (% 58), AEB (% 51) eta Japonia (% 45). Herrialde garatuenen artean privatizaziorako joera bat ikusten da edo, gutxienez, fondo pribatuek gero eta parte-hartze handiagoa dute unibertsitate publikoen finantzaketan. Europan, unibertsitate-hezkuntzarentzako ekarpen pribatua % 25 ingurukoa da: Espainia jadanik iritsi da kopuru horretara.

Sektore inplikatu guztiak bat datoz esatean unibertsitate-ikasleen prestakuntza akademikoko bikaintasuna ezagutza sortzeko prozesuaren piezarik garrantzitsuenetako bat dela. Ezagutza sortzeko prozesu honek, bere aldetik, egungo ezagutzaren gizarteak behar dituen elementuak ematen ditu. Azkenik, argi dago ezagutzaren gizartea munduko herrialde guztiei eragiten dien globalizazio-prozesuan murgildua dagoela eta, beraz, gizarte horrek ez diela tokian tokiko beharrei bakarrik erantzuten: gizarte horrek mundu-mailako beharrei erantzuten die.

Erasmus Europako unibertsitateen artean ikasleen trukerako programa 1987an sortu zen. Erasmusek martxan egon den zortzi urteetan (1994ra arte arrakasta izan du, eta programa hori inplementatzerakoan detektatu diren beharrak ikusita, beste programa europar bat sortu da, Sokrates, jarduera-kopuru handiagoa hartzen duen programa. Programa hori 1995ean jarri zen martxan, eta, beste jarduera batzuen artean, Erasmus ikasleen trukea bereganatu zuen, eta 2006. urtera arte egongo da martxan. Dena den, itxura guztien arabera urte gehiagoan egongo da funtzionamenduan. Programa horren arrakastaren adierazletako bat izan da 2002. urtera arte Europan unibertsitate-ikasketak burutzen ari ziren milioi bat ikasle baino gehiago mugitu zirela. Hori ustekabeko arrakasta izan zen eta beste ekimen batzuei bide eman die, Europan. Egin izan diren iritzi-ikerketak adierazten duten legez, ikasleak eta unibertsitateak gustura daude, orokorrean, programarekin, ekonomiari eta kudeaketari lotutako gai jakin batzuekin izan ezik.

Elkartrukerako programak balio izan zuen, besteak beste, beharrak identifikatzeko. Behar horietako bat burututako ikasketen transferentzia-sistema baten inplementazioa izan zen. Hala, Europako kredituen transferentzia-sistema (ECTS), entsegu moduan 1989an martxan ipini zena, ikasle-trukaketak eta, oro har, trukaketa-programak ondo funtziona dezaten ipini zen martxan. Esan beharra dago gaur egun Sokrates programak orokorrean eskatzen duela parte hartzen duten unibertsitateek ikasleen trukaketan

kredituen transferentzia-sistema hau erabiltzea. Beste jarduera oso garrantzitsu batzuk egon badira ere, dudarik ez dago Erasmus programak eta ECTS sistemak eragin espezifiko bat izan dutela Europako konbergentzia-prozesuan.

Azkenik, Europak estrategia bat ezartzea erabaki du, bere pisua sendotzeko bai ezagutza sortzeko prozesuan bai gizarte global honetan. Hala, goi-mailako hezkuntzaren inguruko estrategia funtsezkoa dirudi epe luzerako proiektu batean. Argi dago Europaren ahalmena bere dibertsitatean dagoela, baina faktore hori ahultasuna ere bada ahalmen moduan eskala handiko homogeneotasuna duen produktua ekoizten eta saltzen dakitela erakutsi duten sistemen aurrean. Kontua da, beraz, aurrena tokian tokiko mugak hautsi egin behar direla eta, horretarako, erreferentzia-puntuak ezarri behar direla (kreditu europarra edo Europa osorako titulazioen egitura onartzea, esaterako), ondoren erronka garrantzitsuagoi ekiteko.

# Une gogoangarri aipagarrienak

Jarraian, hitz bitan aztertzen dira gure iritziz garrantzitsuenak diren dokumentuak eta gailurrak; unibertsitate-hezkuntzaren arloan Europak XXI. mendearen lehenengo erdialderako duen strategiaren inguruko dokumentuak eta gailurrak, hain zuzen ere.

## ***Sorbonako deklarazioa (1998)***

1998ko maiatzaren 25ean lau hezkuntza-ministro europar (Alemania, Frantzia, Italia eta Erresuma Batua) Sorbonan bildu ziren, Pariseko Unibertsitatearen urteurrena zela eta. Lau ministro haiek *Sorbonako Deklarazioa* idatzi eta sinatu zuten. Deklarazio hartan, sinatzaileek hitz eman zuten guztientzako erreferentzia-esparru bat bultzatuko zutela Europan, kanpoko aitormena hobetzeko batetik, eta ikasleen mugikortasuna eta lan-aukerak errazteko bestetik.

## ***Boloniako deklarazioa (1999)***

Sorbonako Deklarazioaren ondoren, Europako 29 herrialde eta estatu elkartu Bolonian bildu ziren, 1999ko ekainaren 19an, eta Boloniako Deklarazioa adostu eta sinatu zuten. Deklarazio hartan, EUE sortzeko sei helburu estrategiko aurreikusi zituzten:

- (1) Ulertzen eta alderatzen erraza den titulazio-sistema bat antolatzea (baita diplomaren gehigarria jarritz ere), enpleguaren lorpena eta Europako Unibertsitate Sistemaren lehiakortasuna indartzeko.
- (2) Bi ziklo nagusitan oinarritutako sistema bat antolatzea: graduatu aurrekoa (lehenengo zikloa) eta gradua (bigarren zikloa). Bigarren ziklora sartzeko, ikasleek lehenengo zikloko ikasketak gainditu behar dituzte; horretarako, hiru urteko epea izango dute, gutxienez. Lehenengo zikloaren ondoren lortutako diploma ere kualifikazio-maila egokia duen titulutzat hartuko da Europako lan-merkatuan. Bigarren zikloak masterrerako eta/edo doktoregorako bidea irekiko du, Europako herrialde askotan gertatzen den moduan.

- (3) Kredituen sistema homogeneo bat ezartzea (European Credit Transfer System, ECTS, delakoaren antzekoa), ikasleen mugikortasun zabalago bat ahalbidetzeko bitarteko moduan. Kredituak goi-mailako hezkuntzako erakundeetatik kanpo ere lor daitezke, bizitzan jasotako esperientzia barne, baldin eta unibertsitate hartzaileetan onartua izaten bada.
- (4) Mugikortasuna sustatzea; horretarako, elkartruke librea aplikatzeko dauden oztopoak eliminatuko dira eta arreta berezia ipiniko zaie bi faktore hauei:
  - Ikasleei ikasteko, prestatzeko eta beste hainbat zerbitzu eskuratzeko aukera ematea.
  - Europako ikerkuntzarako, irakaskuntzarako eta prestakuntzarako erakundeetan eginiko egonaldien aitormena eta balorazioa, horiek irakasleentzat, ikertzaileentzat eta administrazioko pertsonalarentzat dituzten estatutu-eskubideak ahaztu gabe.
- (5) Kalitatearen ziurtapenaren arloan Europako lankidetzaren bultzatzea, horrela irizpide eta metodologia alderagarriak garatu ahal izateko.
- (6) Goi-mailako hezkuntzan behar diren dimentsio europarrak sustatzea; batez ere, garapenera eta erakundeen arteko lankidetzara, mugikortasun-eskemetara eta ikasketa-programetara, eta prestakuntzaren eta ikerkuntzaren integrazioa bideratutako dimentsioak.

Hona hemen Boloniako Deklarazioaren garrantzia eta irismena ulertzeko funtsezko bi alderdi. Lehenik eta behin, gobernu-erakundeetatik sortu zen, prozesuan unibertsitateen eta beste eragile batzuen laguntza izan badu ere. Bigarren, helburu batzuk, horiek betetzeko borondate bat eta prozesuari segimendua egiteko hainbat etapa ez ezik prozesua burutzeko epe-muga bat ere (2010) ipintzen da.

Hartutako lan-bideari eta helburuak erdiesteko prozesuari *Boloniako prozesua* esan izan zaio.

### ***Europako unibertsitateen lehenengo bilera: Salamancako gailurra (2001)***

Europako goi-mailako hezkuntzako erakunde ofizialen 300 ordezkari baino gehiago bildu ziren Salamancan, 2001eko martxoaren 29an eta 30ean, Boloniako prozesuaren beharren inguruko hausnarketa eta azterketa egiteko. Hausnarketa haiek ministroek

Pragan egin zuten gailurrean aurkeztu ziren. Bilera hartan, Europako Unibertsitateen Elkarteak (EUE) sortu zen, eta argi geratu zen Europako unibertsitateak Boloniako Deklarazioaren helburuen alde eta EUE sortzearen alde zeudela.

Hauek izan ziren adostutako printzipioak:

1. Autonomia erantzukizunarekin. Prozesuak unibertsitateei ahalbidetu behar die erantzukizuneko autonomia printzipioa aplikatzea.
2. Hezkuntza ondasun publiko moduan: EUEk hezkuntza zerbitzu eta erantzukizun publikoa dela dioen printzipio europarra errespetatu beharko du.
3. Ikerkuntzaren funtsezkoa zeregina: EUEk garbi izan behar du goi-mailako irakaskuntza ikerkuntzan oinarritzen dela.
4. Dibertsitatearen antolakuntza: EUEk etorkizuna izango du, baldin eta hizkuntzen, sistema nazionalen eta erakundeen eta garapen kurrikularren moten eta profilen dibertsitatea malgutasunez antolatzeko gai bada.
5. Kalitatea funtsezko zutabe gisa: EUE balore akademikoen inguruan garatu behar da, eta kalitate onekoa dela erakusten duten probak eman behar dira. Kalitatea *sine qua non* baldintza da, EUErengan konfiantza izateko eta EUEk egokitasuna, mugikortasuna, bateragarritasuna eta erakargarritasuna izan dezan.

Hauek izan ziren identifikatutako eta adostutako funtsezko faktoreak:

1. Kalitatearen bermea: kalitatearen bermea ezin da oinarritu hainbat arau uniformeki aplikatzen dituen organismo bakar batean. Planteamendua da elkarri aintzatesteko mekanismoak diseinatzea, kalitatea Europa osoan bermatzeko, eta, horretarako, egiaztapenak balio dezake.
2. Egokitasuna: Irakaskuntza lan-merkatuaren beharretara egokitzen dela kurrikuluetan agertu behar da.
3. Mugikortasuna: Ikasleen, irakasleen eta diplomatuen zirkulazio librea EUEren funtsezko puntua da.
4. Kualifikazioak bateragarriak izan behar dute graduatu aurreko zikloan eta graduatu ondorengoko zikloan. Asko bat datoz esatean graduatu aurreko ECTS kredituak 180-240 bitartean egon behar dutela. Zuzenean masterra lortzeko bidea eman dezaketan kurrikulu integratuak sor daitezkeela esatean ere asko ados daude.

5. Erakargarria: EUEk mundu guztiko pertsonak erakartzeko baldintzak bete behar ditu.

### ***Pragako gailurra (2001)***

Boloniako gailurraren ondoren, bigarren gailur bat egin zuten Europako hezkuntza-ministroek Pragan, 2001eko maiatzaren 19an. Gailur hartan, 33 herrialde edo estatu kide egon ziren, eta bi helburu izan zituzten:

1. Boloniako prozesuaren segimendua egitea, eta
2. datozen urteetarako zuzentarauak eta gakoak ezartzea.

Pragako komunikatuan, ministroek:

1. Boloniako helburuak berretsi zituzten;
2. oso begi onez ikusi zuten Europako Unibertsitateen Elkartearen eta Ikasleen Europako Kontseiluaren zeregina;
3. Europako Batzordeak emandako laguntza gogoan hartu zuten;
4. Boloniako prozesuaz (Boloniako Deklarazioaren helburuez) hitz egin zuten; eta
5. EUEren erakargarritasuna indartzeko elementu giltzarritzat honako hauek hartu zituzten:
  - kalitatearen egiaztapena eta bermea, titulazioetan eta unibertsitateetan;
  - ECTS kredituen aitormena eta erabilera;
  - titulu guztien garapena;
  - mugikortasuna garatzeko oztopoen gainditzea;
  - etengabeko hezkuntzaren sustapena; eta
  - ikasleen partaidetzaren sustapena.

Ministroek erabaki zuten hurrengo bilera Berlinen egitea, 2003an, eta bilera hartan Pragako bilerarako aurreikusi ziren helburu berak izango ziren.

### ***Europako unibertsitateen bigarren bilera: Graz-eko gailurra (2003)***

Europako goi-mailako erakundeetako 600 ordezkari ofizial baino gehiago bildu ziren 2003ko maiatzaren 29tik 31ra bitartean Graz-en (Austrian), Boloniako prozesuaren aurrerapenen inguruan hausnartzeko eta datozen urteetarako beharrak aztertzeko.

Hausnarketa haiek Berlinen 2003ko irailean egin zen ministroen gailurrean aurkeztu ziren.

Honako bost gai hauez hitz egin zuten:

1. Europako goi-mailako hezkuntza, mundu globalizatu batean;
2. ikerkuntzaren eta irakaskuntzaren arteko loturen sendotzea;
3. Europako unibertsitateetan kalitate-kultura baten finkapena;
4. erakundeen gobernagarritasunaren eta kudeaketaren hobekuntza; eta
5. Boloniari eta Pragari bultzada.

Gai haiek guztien emaitza 2003ko uztailaren 4ko Graz-eko Deklarazioa izan zen. Deklarazio hartan, puntu hauek jaso ziren:

1. 2010. urte aldera eta aurrerago: unibertsitatek EUEren eraikuntzan duten eta izango duten zeregina zehazten da.
2. Unibertsitatea ondasun publiko moduan: unibertsitateen eta gobernuen arteko harremanak lantzen dira.
3. Ikerkuntza goi-mailako hezkuntzaren zati gisa. Europako ikerkuntzaren eta goi-mailako hezkuntzaren eta sare-bidez lankidetzaren arteko zubiak azpimarratzen dira.
4. Kalitate akademikoaren hobekuntza, erakunde sendoak eraikiz. Adierazten da buruzagitza, kalitatea eta kudeaketa estrategikoa beharra dagoela goi-mailako hezkuntzako erakundeetan eta horretarako behar diren baldintzak bete behar direla, gobernuetan eta unibertsitateetan.
5. Boloniako prozesua bultzatuz: unibertsitateek guztiz prest daudela berresten da, Boloniako eta Pragako eskakizunekin betetzeko.
6. Mugikortasuna eta dimentsio soziala: Mugikortasun-programen borondatea eta gobernuak bete behar duten zeregina azaltzen da. Genero-politika baten beharra agerian ipintzen da. Erabakitzen da programa eta titulazio bateratuak bultzatu behar direla eta ECTS kredituak baliatzea.
7. Kalitatea bermatzea, marko politiko bat Europan: Onartzen da Boloniako prozesuan kalitatea bermatzea funtsezko faktorea dela.
8. Unibertsitateak erreformaren erdi-erdian. Garbi utzi nahi da Boloniako prozesuari ematen ari zaion bultzada, neurri handi batean unibertsitateen partaidetzari eta ahaleginari esker ematen ari zaion bultzada.

### ***Berlingo gailurra (2003)***

Pragako gailurraren kasuan bezala —Boloniako gailurretik bi urtera egin zen hura—, bi urteren buruan Europako hezkuntza-ministroek hirugarren gailur bat egin zuten Berlinen, 2003ko irailaren 19an. Gailur hartara 33 herrialde edo estatu kide joan ziren, Europako Unibertsitate Eremuaren sorbidea arintzeko asmoz. Pragan gertatu zen moduan, gailurrak bi helburu izan zituen:

1. Boloniako prozesuaren segimendua egitea, eta
2. hurrengo urteetarako iritziak, zuzentzarauak eta lehentasunak ezartzea.

Ministroek Boloniako prozesuaren elementu guztien garrantzia berretsi zuten eta erakundeetan, herrialdeetan eta Europan ahaleginak areagotu beharra azpimarratu. Era berean, 2003-2005 denboraldian jarduera hainbat burutzeko epe-muga bat adostu zuten. Hauek izan ziren landu zituzten puntuak:

- Kalitatearen bermea: beste behin adierazi zuten kalitatea bermatzeko guztiek adostutako irizpideak eta metodologiak garatu beharra daudela. Erabaki zuten hurrengo gailurrean kalitatea bermatzeko sistema nazional guztietan elementu hauek aurreikusiko zirela: erantzukizunak, programen eta erakundeen ebaluazioa, egiaztapen-sistema bat eta agentzia europarren sare-bidezko lankidetzak. Ministroek dei bat egin zioten Kalitaterako Europako Agentzia Nazionalen Sareari (ENQA), horren kideen bitartez, EUErekin eta beste erakunde batzuekin batera kalitatea bermatzeko arau, prozedura eta jardunbide batzuk egin ditzan.
- Titulazioen egitura: gailurrean Bolonian aurreratu zen egitura bera berretsi zuten: sistemak bi ziklo eta doktoregoa izango ditu. Lehenengo zikloek bigarrengoei emango die bidea, eta bigarrengoek, era berean, doktoregoari. Gainera, *maila* hitzaren ordez *ziklo* hitzaren erabilera finkatu zen.
- Mugikortasunaren sustapena: erabaki zen EUEren barruan mugikortasunarentzako mehatxu ziren oztopoak eliminatu egin beharko zirela.
- Kredituen sistema baten ezarpena: aho batez onartu zuten Europan ECTS izango zela kreditu-sistema bakarra.

- Tituluen aitormena: erabaki zuten 2005ean ikasle graduatu orok jasotako tituluaren gehigarri bat jaso beharko duela European gehien hitz egiten den hizkuntzetako batean.
- Goi-mailako hezkuntzako erakundeak eta ikasleak: ikasleak EUEko funtsezko pieza moduan sartu beharra berretsi zuten, horiek sustatzaileak eta funtsezko piezak direlako.
- Goi-mailako hezkuntzaren dimentsio europarraren sustapena: adierazi zenez, eduki europarreko moduluak, ikastaroak eta kurrikuluak ugaltu egin dira. Baterako ikasketak atzerriko prestakuntza-aldiekin batera egin beharra azpimarratu zuten.
- EUEren erakargarritasunaren sustapena: hirugarren herrialdeetako ikasleak sisteman sartzeko beken programak sortu beharra berretsi zuten.
- Bizitza guztiko prestakuntza: erabaki zuten neurriak hartu beharko zirela, unibertsitate mailan bizitza guztiko prestakuntza-aukerak gehitzeko, aurreko ikasketen aitormena barne. Ikasketa-mota hauetarako, ECTSren erabilera ere sustatuko da.

Lehen aipatutako puntuez gain, ministroek erabaki zuten jarraian aipatzen diren jarduerak gehigarri hauei ekitea:

- EUE eta EIE – ezagutzaren gizartearen bi zutabe: ministroek adierazi zuten beharrezkoa zela Boloniako bi zikloetako egituratik harantzago joatea eta doktoregoa prozesu honetako hirugarren ziklo moduan sartzea. Dei bat egin zuten doktorego-mailan eta doktoratu ondorengoko mailan mugikortasuna gehitzen ahalegintzeko eta hor zeresana duten erakundeak animatu zituzten horien lankidetzara areagotzeko, bai doktorego-ikasketetan bai ikerlari gazteen prestakuntzan. Doktorego-mailako sareetara laguntzak eman beharra berretsi zuten, bikaintasunaren garapena bizkortzeko eta, hala, bikaintasuna EUEren nortasun-ezaugarrietako bat bihurtzeko.
- Aurrerapenen neurtzea: erabaki zuten prozesuaren aurrerapenak neurtzeko jarduerak antolatuko zirela: kalitate-bermatzea, bi zikloetako sistema, tituluen aitormena eta ikasketa-aldiak.

- Segimendua: kide berriak (atxikitze-klausula aldatzen da eta kideen kopurua 40ra igotzen dira) eta egitura (segimendu-batzordeko kideak zehazten dira).

Azkenik, hurrengo gailurra Bergen-en (Norwegian) egitea erabaki zuten, 2005eko maiatzean.

# Aipatzen diren dokumentuak eta proiektuak

## *Trends I, II eta III txostenak*

Trends txostenen helburua da Boloniako prozesuari laguntzea, identifikatuz konbergentziarako esparruak, konbergentziarako jarraibideak edo joerak eta konbergentzia handiago bat ahalbidetuko duten norabideak. Dokumentu-sorta hau Europako Batzordeak Sokrates programaren bitartez diruz lagundutako proiektu batetik sortu da.

Txosten hauetan zehatz-mehatz aztertzen dira gaur egun Europako goi-mailako hezkuntza-sistemak, konbergentziaren inguruan aipatutako alderdiak eta Boloniako prozesuaren aurrerapenak.

Lehenengo txostena da “*Trends in Learning Structures in Higher Education in Europe*” edo Trends I. Txosten honen oinarrian inkesta bat eta ikerketa bat daude; Europako Batasuneko eta EEAko herrialdeetako goi-mailako hezkuntza-sistemen egiturei eta joerei buruz eginiko inkesta eta ikerketa, hain zuzen ere.

Bigarren txostena da “*Trends II, Survey of Change and Reforms from Bologna to Prague*” edo Trends II. Txosten honen hiru zati ditu, eta horietan gai hauek lantzen dira: aurreko txostena eta txostena egiteko metodoak. Halaber, Boloniatik Pragara arte izan diren aldaketak eta erreformak lantzen dira, eta baita ere Europa erdialdeko, ekialdeko eta hegoaldeko eta Txipreko, Maltako eta Suitzako goi-mailako ikasketak eta sistemak.

Hirugarren txostena da “*Trends in Learning Structures in Higher Education in Europe (III)*” edo Trends III. Txosten hau mota honetako lehenengoa da: bertan jasotzen dira Europako hezkuntza-ministroen iritzia, errektoreen konferentziak, unibertsitateen elkarteak, ikasleen elkarteak eta enpresarien erakundeak. Txostenean herrialdeetan inplementatu diren Boloniako prozesuaren erreformen mapa bat azaltzen da, eta herrialdeak banan-banan aztertzen dira, Boloniako herrialde-xede bakoitzarentzat eta Pragako lehentasunezko hiru bide bakoitzarentzat.

Berlingo gailurretik ondoriozta daiteke ministroen asmoa *Trends IV* txostena egiteko eskatzea dela. Txostenean, ministroen bilera honetan ezarritako jardueren eta lehenetasunen segimenduari buruzko datuak jasoko dira, eta baita ere Boloniako prozesuaren bilakaera, orokorrean.

### ***Tuning proiektua***

2000ko udan, hainbat unibertsitatek proiektu bat diseinatu zuten: “*Tuning educational structures in Europe*”. Proiektu hura Europako Unibertsitateen Elkarteari aurkeztu zitzaion, laguntza eman zezan, eta baita ere Europako Batzordearen Sokrates Programari, finantzatu zezan. 100 erakunde inguruk hartu zuten parte proiektuaren lehenengo fasean (2000-2002 denboraldian). Gaur egun, proiektuaren bigarren fasea ari dira lantzen.

Tuning proiektuaren bidez nahi da Boloniako prozesuari orokorrean laguntzea, baina batik bat honako helburu hau erdiestea: ulertzen eta alderatzen erraza den titulazio-sistema bat antolatzea.

Proiektuaren helburua da hainbat arlotako erreferentzia-puntu orokorrak eta lehenengo eta bigarren zikloetako gaitasun espezifikoak identifikatzea. Lehenengo etapan, zazpi diziplina aurreikusi ziren: Enpresa Ikasketak, Kimika, Hezkuntza, Geologia, Historia, Matematikak eta Fisika. Bigarren fasean, aurreko diziplinetan sakondu eta bi berri aurreikusi ziren: Erizaintza eta Ikasketa europarrak.

Gaitasunak ikasketetako emaitzei dagozkie: ikasle batek dakiena edo egiaztatzeko gai dena, ikasketa-prozesua behin amaituta. Gaitasun espezifikoak eta orokorrak aurreikusten dira; buruzagitza eta komunikatzeko gaitasuna, esaterako. Gaitasunak erreferentzia-puntu moduan deskribatzen dira, kurrikuluna garatzeko eta ebaluazioa egiteko.

Dudarik ez dago Tuning proiektuak berebiziko garrantzia duela, Boloniako Deklarazioa berretsi duten herrialdeetan titulazioak diseinatzeko. Kalitatearen agentzia nazional

askok titulazioen diseinurako jarduera aitzindari gehienek Tuning lan-metodologia jarraitzen edo gomendatzen dute.

### ***Beste proiektu batzuk***

Europako Unibertsitateen Elkarreak eta Europako Batzordeak EUEren sorrerarekin zerikusi zuzena duten hainbat proiektu finantzatu dituzte, eta proiektu horiek oso interesgarriak izan litezke Europako unibertsitateentzat. Horien artean, bi proiektu dira aipatzekoak: unibertsitateen kalitateari buruzko segimendua eta ebaluazioa egiteko bata, eta hainbat unibertsitate europarren artean master-mailako titulazio aitzindariaren ezartzearena bestea.

Proiektu horiek esperimentalak badira ere, litekeena da eragin handia izatea Europako unibertsitate-sistemetako politikengan, Trends eta Tuning proiektuekin gertatu zen moduan. Horien inguruko informazio lortzeko modu on bat lehen aipatutako organismoen web orrietara sartzea da.

Proiektu europar horiez gain, Espainian ere proiektu aitzindariak abian ipintzen ari dira kalitatearen ebaluaziorako eta egiaztapenerako agentzia nazionalaren bitartez. Horiei buruz hurrengo atalean jardungo gara.

## Espainiako unibertsitate-sistemaren aurrerapenak

2001eko abenduaren 21ean Unibertsitateen 6/2001 Lege Organikoa (LOU) argitaratu izana Boloniako prozesuaren inguruan Espainian eman den lehenengo erreferentzia puntutzat har daiteke. Lege horretako artikuluetan ikasketen egituren inguruan burutu beharreko erreformak edo hartu beharreko neurriak aipatzen dira, Espainiako unibertsitate-sistema EUEn erabat integratu dadin (XIII. Titulua: 87. eta 88. artikulua).

Harrezkero, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak emandako urratsak LOUko artikulua betetzeko helburuarekin eman ditu.

LOU argitaratu zenetik urtebete pasatxo igaro eta ANECA sortu zen ofizialki, Legeko V. Tituluari erantzuteko. Hala, ANECAk Europako Konbergentziarako programa bultzatu du, eta programa horretan hainbat ekimen aurreikusten dira. Ekimen horien helburua da Espainiako unibertsitate-sistema EUEn integratzea; horretarako, ahaleginak egingo dira unibertsitate espainiarrek Boloniako prozesuan duten partaidetza indartzen.

LOUren edukiaren bidetik, hainbat errege-dekreturen zirriborro (EDZ) edo errege-dekreturen proiekturen zirriborro (EDPZ) argitaratu dira. Batzuk dekretu moduan argitaratu dira jadanik (gehigarri europarra eta kreditu europarra), gehienak behin betikotzat oraindik hartu ezin badaitezke ere:

- (1) EDPZ tituluaren gehigarri europarra (2003/03/07)
- (2) EDZ kreditu europarren sistema eta ECTS kalifikazioak (2003/04/09)
- (3) EDPZ unibertsitate-ikasketen egitura: Gradua (2003/06/03)
- (4) EDPZ graduatu ondoko unibertsitate-ikasketak (2003/06/03)
- (5) EDZ ikasketa-planen homologazioa (2003/06/03)
- (6) EDPZ tituluaren homologazioa eta baliozkotzea (2003/06/03)

## **Unibertsitate-ikasketen egitura**

Beste gai garrantzitsu bat da unibertsitate-ikasketetan bi maila edo ziklo aurreikustea (deklarazioetan *maila* edo *zikloa* hitzak berdin erabili izan badira ere, azkeneko gailurrean, Berlingo gailurrean, *ziklo* hitza hobetsi da behin betiko; hitz hori, ordea, ez da erabili behar gaur egungo unibertsitate-sistema espainiarrean duen esanahiarekin).

Lehenengo maila edo lehenengo zikloari *gradua* deitzen zaio, eta horrek ikasleei ahalbidetu behar die Europako lan-merkatuan sartzeko moduko kualifikazio profesionala duen titulua lortzea. Gaur egun hausnarketa honako ideei honen inguruan egiten da: graduak 180-240 kreditu europar izan behar ditu. Lehenengo zikloa edo gradua gaindituz gero, bigarren ziklorako bidea emango du.

Bigarren maila edo bigarren zikloari *graduondokoa* esaten zaio. Graduondora iristeko, lehenengo zikloa gainditu behar da, eta horrek masterra lortzea ahalbidetu dezake. Horiek ikasketetan sakontzeko eta espezializatzeko edo ikerketarako prestatzeko izango dira.

Azkenik, unibertsitate-ikasketen azkeneko koska doktoregoa da. Doktoregoa burutzeko ezinbestekoa izango da aurretik bigarren ziklo bat egitea, eta doktorego-tesi bat egitea eta defendatzea izango da. Doktoregoa gainditzeak doktore titulu ofiziala eskuratzeko eskubidea emango du.

Titulazioen egiturari eta graduko unibertsitate-ikasketa ofizialei buruzko dekretua denbora gutxi barru argitaratuko dutelakoan gaude. Nolanahi ere, eta kontuan izanik azkenaldian gertatutako gorabeherak, badirudi graduondoko ikasketei buruzko dekretua beranduago argitaratuko dutela.

## **Kreditu europarren sistema**

Boloniako prozesuan elementu berritzaile asko daude eta, ezbairik gabe, horietako bat kreditu europarren sistema bat (ECTS) onartzea da; batzuek sistema horri Europako goi-mailako hezkuntzako *euroa* esaten diote. Kreditu-mota horren arabera, ikasturte

akademiko batean denbora osoko arduraldian diharduen ikasle baten lan guztiaren bolumena 60 kreditukoa da (BOE 224, irailaren 5eko 1125/2003 ED).

Esate baterako, esan daiteke kreditu europar bat lortzeko behar den lan-bolumena 25-30 ordu bitartean dagoela; horretarako, zama akademikoa urtean 40 astekoa izango da eta lan-zama, berriz, astean 40 ordu ingurukoa. Hala ere, ez dugu gure burua engainatu behar: ez dugu kreditua eragiketa aritmetikoen multzo bat bakarrik balitz bezala hartu behar (nahiz eta, begi-bistakoa denez, horrelako eragiketa batzuk egin behar izan). Kreditu europarra da ikasleak duen lan-bolumena, dagokion zentroan edo sailean ikasturteko unitate bakoitza gainditzeko eskatzen zaiona, eta hor sartzen dira ikasgai magistralak, lan praktikoak, mintegiak, praktika-aldiak, kanpo-lana, lan pertsonala (liburutegian edo beste lekuren batean), azterketak eta ebaluatzeko beste metodo batzuk.

ECTS delakoarekin amaitzeko, esan beharra dago unibertsitate espainiar gehienek azkeneko hamarkadan aldizkakotasun desberdinarekin erabili izan badute ere, mugikortasun-programetan kredituak transferitzeko sistema gisa erabili izan dute. Hortaz, esan daiteke askok eta askok horretarako tresna gisa ezagutzen dutela (UPV/EHUK azkeneko hamar urte daramatza kredituak transferitzeko sistema moduan erabiltzen ECTS). Hala eta guztiz ere, horren benetako erabilera — konplexuagoa baina garrantzitsuagoa da— gogoia kentzeko modukoa da, ez baita erabiltzen erabili beharko litzatekeenerako. Eta erabilera horri kreditu-metaketa esaten zaio. Beraz, hori funtsezko helburua da unibertsitateentzako datozen urteetarako. Hitz bitan esanda, gainerako herrialde europarrei dagokienez, guztiak bat datoz sistema hori kreditu-metaketarako erabili behar dela esatean. Trends III txostenean esaten den legez, herrialde europarren % 40ak kreditu-metaketarako erabiltzen du eta hainbat herrialde oso aurreratua dago horren erabileran (esaterako, Danimarka, Errumania, Norvegia eta Suedia).

### **Tituluarentzako gehigarri europarra**

Onartutako beste berrikuntza bat da Tituluarentzako Gehigarri Europarra (TGE) onetsi izana. Gehigarri hori da titulazioen gardentasuna bermatzeko eta unibertsitate-tituluak ulerterrazagoak eta alderagarriagoak bihurtzeko (BOE 218, abuztuaren 1eko 1044/2003 ED). Dekretu horrek arautzen ditu unibertsitate espainiarrek TGE emateko bete behar

dituzten baldintzak eta jarraitu behar duten prozedura, dekretuaren aplikazio-eremua eta gehigarriaren edukia.

TGEren bidez nahi da titulatuaren mugikortasuna eta horiek Europako Batasuneko eta estatu elkartuetako lan-merkatuetan sartzeari erraztea. TGE irakaskuntzen aitormenaren inguruan dauden gabeziak konpontzeko sortu zen; izan ere, irakaskuntza asko daude eta irakaskuntza-dibertsitatea handia da. TGEren helburua ez da bakarrik titulazioari buruzko informazio akademikoa lortzea: titulazioaren eginkizunarekin, goi-mailako hezkuntza-sistema nazionalarekin eta bizitza guztiko prestakuntzarekin lotutako informazioa ere lortu nahi da TGEren bidez.

TGEk orain arteko unibertsitate-tituluetan agertu izan ez den informazioa azaldu behar badu ere —horrek bere zailtasuna ekar lezake—, informazio guztia unibertsitateen esku dago jadanik eta, beraz, gehigarria inplementatzea eta martxan ipintzen ez dirudi zailegia denik; esan daiteke unibertsitate-kudeaketan sartzen da lan bat gehiago dela.

### **Beste dekretu batzuk**

Gainerako zirriborroak behin betiko idatzita dauden moduan denbora gutxi barru argitaratuko dituztelakoan gaude; baten bat 2003ko abendua amaitu baino lehen ere bai, beharbada. Halaber, (esate baterako) titulazioen mapa edo irakats zamaren zenbaketa jasotzen dituzten beste zirriborro eta dekretu batzuk espero ditugu; horiek epe luzeagoak dituzte.

### **ANECAREN JARDUERA AITZINDARIAK**

ANECA proiektu aitzindariaren deialdiak egiten ari da, Boloniako helburuekin zerikusia duten hainbat arlotan. Garatu beharreko arloak lotura zuzena dute titulazioen diseinuarekin, erakundearen ebaluazioarekin, ziurtapenarekin eta egiaztapenarekin. Deialdi horietan guztiek izugarritzko interesa piztu dute; unibertsitateen partaidetza zabala izan da. Hain zuzen ere, hauek dira berrienak:

- Doktoregoetako kalitate-aipamenerako Programa
- Ikasketa-planak eta gradu-titulua diseinatzeko Programa.

- Egiaptapen Programa.

Dudarik ez dago UPV/EHUko komunitate unibertsitarioaren zati bat jabetu dela prozesuaren garrantziaz eta jarduera horietan parte hartzeak duen garrantziaz. UPV/EHUren parte-hartzea aipagarria da hiru deialdi horietan: Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako unibertsitateak baino askoz aurrerago dago eta unibertsitate espainiar guztiakin alderatuz, berriz, aurreko postuetan dago.

Emaitzek unibertsitateengan eta, oro har, gizartearengan duten eragina aintzat hartuz — hor ez dago inolako lehentasunik—, esan daiteke programarik erabakigarriena ikasketaplanen diseinuari buruzko programa dela. Lehenengo saioan 17 proiektu onetsi ziren, eta unibertsitateen partaidetza handia izan zen horietan. Interes handia piztu arren eta eskaera asko egin direnez, proiektu guztiek ez zuten finantzaketa eskuratu, eta duela gutxi bigarren deialdi bat ireki da. Programa honek 2004ko udan amaitzen den egutegia du eta emaitzak 2004/2005 ikasturtean aplikatuko dira.

Etorkizunari dagokionez, ANECAk programa gehiago deituko ditu; besteak beste, bigarren zikloen diseinuari buruzko programa. Azpimarratu beharra dago titulazioak egiaztatzeko prozesua ezinbestean bete beharko dela eta ANECA funtsezko faktore bat dela. Horregatik, eta logikoa denez, hil edo bizikoa da ekimen guztietan parte hartzea.

## Bibliografía

- [1] EUROPAKO BATZORDEA (2003), *“From Prague to Berlin: The EU contribution”*, Brusela, EUROPAKO BATZORDEA.
- [2] EUROPAKO BATZORDEA (2003), *“The role of the universities in the Europe of knowledge”*, Brusela, EUROPAKO BATZORDEA.
- [3] CRUE (2002), *“El Crédito europeo y el sistema educativo español”*, Madril, CRUE.
- [4] DE MIGUEL J.M. (2002), *“Building Bridges”*, Madril, APUNE.
- [5] EUE (2003), *“Graz reader: EUA Convention of European Higher Education Institutions. Strengthening the Role of Institutions”*, Leuven, EUE.
- [6] EUE (2003), *“Graz Declaration. Forward from Berlin: The role of universities”*, Leuven, EUE.
- [7] GONZALEZ J. & WAGENAAR R. (2003), *“Tuning: Informe final proyecto piloto fase I”*, Madril, ANECA.
- [8] HAUG G. & TAUCH C. (2001), *“Bologna, Salamanca, Prague – and now? Recent developments in the Bologna process”*.
- [9] HAUG G. & KIRSTEIN J. (2001), *“Trends in Learning Structures in Higher Education in Europe”*, EUE & Europako Batzordea.
- [10] HAUG G. & TAUCH C. (2002), *“Trends II, Survey of Change and Reforms from Bologna to Prague”*, Finlandiako Hezkuntza Departamentua & Europako Batzordea.
- [11] HZKM (2001), *“Ley Orgánica de Universidades 6/2001”*, Madril, HZKM.
- [12] HZKM (2003), *“La integración del Sistema Universitario Español en el Espacio Europeo de Enseñanza Superior”*, Madril, HZKM.
- [13] MICHAVILLA F. & CALVO B. (2000), *“La Universidad Española hacia Europa”*, Madril, Ediciones Mundi-Prensa.
- [14] TAUCH C. & REICHERT S. (2003), *“Trends in Learning Structures in Higher Education in Europe (III)”*, EUE & Europako Batzordea.
- [15] UNESCO (1999), *“Statistical Yearbook 1999”*, Paris, Unesco Publishing & Bernan Press.

## Laburdurak eta webhelbide interesgarriak

KETS: Kreditu Europarra Transferitzeko Sistema

EUE: Europako Unibertsitate Eremua.

EIE: Europako Ikerkuntza Eremua

ENQA: Kalitatearen Europako Agentzia Nazionalen Sarea

ESIB: Ikasleen Kontseiluen Europako Elkarte

EUA: Unibertsitateen Europako Elkarte

IES: Goi-mailako Hezkuntzako Erakundeak.

LOU: Unibertsitateen 6/2001 Lege Organikoa

HKKM: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa

TGE: Tituluarentzako Gehigarri Europarra

[www.aneca.es](http://www.aneca.es) (ANECA, Ebaluazio, Kalitate eta Egiapenerako Agentzia Nazionala)

[www.crue.org](http://www.crue.org) (CRUE, Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentzia).

[www.bologna-berlin2003.de](http://www.bologna-berlin2003.de) (Berlingo gailurra)

[www.salamanca2001.org](http://www.salamanca2001.org) (Salamancako gailurra)

[www.oph.fi/publications/trends2](http://www.oph.fi/publications/trends2) Finlandiako Hezkuntza Departamentua)

[www.eaie.nl](http://www.eaie.nl) (EAIE, Nazioarteko Hezkuntzarako Elkarte Europarra)

<http://europa.eu.int/comm/education/socrates/ects.pdf> (ECTS, Europako Batzordea-DGA)

[www.enqa.net](http://www.enqa.net) (ENQA, Kalitate Agentzien Europako Sarea)

[http://europa.eu.int/comm/education/world/world\\_en.pdf](http://europa.eu.int/comm/education/world/world_en.pdf) (Erasmus World, Europako Batzordea, Hezkuntza eta Kulturako Zuzendaritza Orokorra)

[www.esib.org](http://www.esib.org) (ESIB, Europako Ikasleen Elkarte)

[www.unige.ch/eua](http://www.unige.ch/eua) (EUA, Europako Unibertsitateen Elkarte)

[www.univ.mecd.es](http://www.univ.mecd.es) HKKM: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa

[www.relint.deusto/TuningProject](http://www.relint.deusto/TuningProject) (Tuning proiektua)

[www.cepes.ro](http://www.cepes.ro) (UNESCO/CEPES, Centro Europeo Para Educación Superior UNESCO)

# CONVERGENCIA EUROPEA EN MATERIA DE EDUCACIÓN SUPERIOR: PERIODO 1998-2003



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

*Vicerrectorado de Investigación y Relaciones Internacionales*



# Índice

<b><i>Introducción</i></b> _____	<b>3</b>
<b><i>Calendario de hitos</i></b> _____	<b>5</b>
<b><i>Origen del proceso</i></b> _____	<b>7</b>
<b><i>Los hitos más relevantes</i></b> _____	<b>11</b>
<b>La Declaración de La Sorbona (1998)</b>	
<b>La Declaración de Bolonia (1999)</b>	
<b>La primera reunión de universidades europeas: La cumbre de Salamanca (2001)</b>	
<b>La cumbre de Praga (2001)</b>	
<b>La segunda reunión de universidades europeas: La cumbre de Graz (2003)</b>	
<b>La cumbre de Berlín (2003)</b>	
<b><i>Documentos y proyectos de referencia</i></b> _____	<b>19</b>
<b>Los informes “Trends I, II, III”</b>	
<b>El Proyecto Tuning</b>	
<b>Otros proyectos</b>	
<b><i>Avances en el Sistema Universitario Español</i></b> _____	<b>22</b>
<b>La estructura de los estudios universitarios</b>	
<b>El sistema de créditos europeo</b>	
<b>El suplemento europeo al título</b>	
<b>Otros decretos</b>	
<b>Acciones piloto de la ANECA</b>	
<b><i>Bibliografía</i></b> _____	<b>27</b>
<b><i>Abreviaturas y direcciones web de interés</i></b> _____	<b>28</b>

# Introducción

Durante los últimos seis años se han experimentado desarrollos importantes en la concepción de la educación superior europea del futuro. Dichos avances han ocurrido como consecuencia de una serie de programas, cumbres y reuniones que han dado paso a documentos y declaraciones entre los que destaca la que se conoce como “*Declaración de Bolonia*”. Este proceso nos afectará a todos, a profesores, al personal de administración y servicios, al alumnado, y también al resto de agentes y actores sociales. Por ello, es imprescindible estar informado y seguir el proceso de cerca. Es obvio que el proceso es de enorme trascendencia también para el resto de sistemas universitarios mundiales. Una vez concluido el proceso, si los resultados son consecuentes con los objetivos planteados, nuestras universidades además de hallarse en un nuevo escenario investigador, académico y de gestión, también lo estarán en lo referente al personal y al alumnado, por ello, deberán diseñar políticas para dar respuesta a todas estas nuevas circunstancias.

